Kantonamendu hauteskundeak Hego-Angelun

talde, Hego-Angeluren berezitasuna industri eta merkataritza aktibitateen inguruan eraikia izan dela da. Ez da aitzinetik pentsaturik egituratu den hiria, basaki baizik. Horrek ondorio biziki kaltegarriak ekartzen ditu eguneroko bizitzari. Auzoguneak osatu dira, baina ez dago bizigunerik. Gai hori hurbiletik lantzekoa da, basamortu gisako hiri bat baita.

2. Ez da egokia batere. Pirinio Atlantiko departamendua bitan zatitu behar da Ipar Euskal Herriak bere ezagupena ukan dezan. Hego-Angelu bidegurutzean izanik, barnealdearekin eta Hegoaldearekin harremanak garatu beharra du ere.

3. Nire kasuan ez naiz bakarrik aurkezten, abertzaleen batasunean baizik. Duela hamar urte, eta orain arte abertzaleak proiektu komun baten inguruan bildu izan gara, elgarrekin lan egiteko.

4. Bigarren itzulian zer eginen dugun ez dugu oraindik erabaki, baina igande arratsean deliberatuko dugu. Gure eskakizun nagusien inguruan hautagai nagusiek emanen duten erantzunaren arabera ikusiko dugu ea norbaitendako bozka galdeginen dugun ala ez. Instituzio eta euskararen gaiek garrantzia berezia ukanen dute.




ANGELA MEJIAS

Angeluko unibertsitatea.

Guy Mondorge • PS

«Departamendu zaleek ez naute oraindik konbentzitu»



1. Batetik sozial mailan langile sozial gehiago behar ditugu Angelun. Bigarrenik Angelu errepidez zeharkaturik izanik, eskola eta gune publikoen aitzinetik pasatzen diren errepide guneetan segurtasun neurri bereziak ezarri beharrak dira. Gisa berean, auzo ezberdinen arteko elkarbizitzeko loturak segurtatu behar dira. Azkenik, teknologia berrien ikasketa kolegioetan garatu behar dira.


2. Pirinio Atlantikoak egungo egitura legala da. Euskal Departamendua nahi dutenek ez naute oraino konbentzitu, horrek ez dielako erantzuten Baiona-Angelu-Miarritzeko eskualdeak dituen beharrei. Departamendu berri bat behar balitz, Angelu, Ipar Euskal Herria eta Aturri eskualdeko errealitateak hartu beharko lituzke kontuan.

3. Bakoitzak bere adierazpen askatasuna atxiki behar du. Angeluarren aitzinean bakoitzak bere sentsibilitatea azaldu behar du, eta horretan ez dago inolako arazorik.

4. Bigarren itzulian, orain arte bezala ezkerra elkarturik egonen da. Ez dago bertzerik negoziatzerik, berde, komunista eta sozialistok bat eginen dugula pentsatzen dut.

Bernard Gimenez • UDF

«Euskal boz batzuk eskuratuko ditudala uste dut»



1.Nire lehen kezka enplegua da. Horrekin batean, bizitza kalitatea eta gazteek etorkizuna izan dezaten, tokian lan egin, bizi eta ikasteko ahalmena ukaitea, gisa berean.


2. Ipar Euskal Herriko interesak defenditu nahi ditut kultur mailan eta hizkuntza mailan ere. Elebitasuna puntu garrantzitsua da niretzat. Angeluren garapena Pauetik bidera daitekeela uste dut. Ez naiz Euskal Departamenduaren kontra, baina momentuz bertze bideak baliatu behar ditugu gure hiria aglomeraziorat, Hegoalderat eta barnekalderat zabaltzeko. Ez naiz segur departamendua egitura zentralista izanik, hori lagunduko duen. Hobe dugu egun dugun egitura atxiki eta barnetik mentalitateak aldatzen saiatzea.

3. Ez naiz bakarrik aurkezten. Herriko Etxe gehiengoaren sustengua dut, auzapezarena barne. RPR-ko hautagaia, aldiz, bai bakarrik aurkeztu da. Bera bakarrik da, eta ni ekiparekin.

4. Nik nire bidea segituko dut, beharbada euskal boz batzuk gehituko zaizkit. Ez dut bertze inorendako boza galdegin beharko, segur naizelako boz gehien ukanen duen hautagaia izanen naizela.

Jean Michel Barat • RPR

«Aurkezteko legitimitate osoa dut»



1. Demografikoki zein ekonomikoki indartzen ari den hiriaren eta bizitza kalitatearen artean oreka segurtatuko duen garapena behar dugu Angelun. Hego-Angelu, Baiona-Angelu-Miarritze Distrituaren bihotza da, eta garapena hurbiletik segitu behar dugu. Gisa berean, elkarren ondoan bizi diren biztanle soilak izan gabe, elkarrekin bizi diren biztanleen hiria bilakarazi behar dugu.

2. Bai. Zatiketaren kontrakoa naiz. Hemendik urte batzuetara ohartuko gara Frantzian egitura administratibo gehiegi ditugula bata bertzearen gainean. Eskualdezaleagoa naiz departamenduzalea baino.

3. Asko atsegin izanen nukeen udalaren gehiengoak nire hautagaitza lagundu balu. Iruditzen zait gauzak ez daitezkeela eztabaida eta pentsaketarik gabe erabaki, Gimenezekin egin nahi zuten bezala. Horregatik aurkezteko legitimitate osoa dudala iduritzen zait.

4. Bigarren itzulian UDFko hautagaiak baino boz kopuru laurden bat gutiago badut, bere aldeko bozka galdetuko dut, berak ez bezala.

Henri Rupert • FN

«Enpleguak frantsesentzat lehenik»



1. Enpleguan frantsesek lehentasuna ukan dezaten da nire lehen galdea. Lantegi batek langileak kanporatzean frantsesek izan behar dute enpleguaren lehentasuna, atzerritarren aitzin. Egoitza sozialetan frantsesek izan behar dute lehentasuna, baita laguntza sozialetan ere. Euskararen irakaskuntza lagundu behar da, baina batez ere gaskoiera. Angelu hiri gaskoina da batez ere. Liburutegian egun eskuin nazionalaren liburuak eskas direla ageri da. Heziketa profesionala laguntzea eta saltegi handien etorrera mugatzea, gai garrantzitsuak dira ere. Azkenik, zahar etxe gehiago eraiki behar da.

2. Erabat egokia da. Frantziako Konstituzioko bigarren artikulua gogoan izanik, Errepublika bat eta zatiezina da. Euskal Departamenduak Euskal Herri espainoleko independentzia zaleei hegalak emango lizkieke. Lanjerosegia da departamendua ematea.

3. Ez dago akordio posiblerik RPR eta UDF alderdiekin. Fronte Nazionala bakarrik dago guztien kontra. Gu patriotak gara eta RPR eta UDFkoak Bruselako Europaren alde, menpekotasunaren alde dira.

4. Fronte Nazionaleko hautesleek beren arima eta kontzientziaren arabera eginen dute.